

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

GENERATIVE PLAYGROUND: LLMS MADE EASY (2 ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2025-2026

ARLOA: Ikasketa Teknikoak

KREDITUAK: 2,00 ECTS (*) kreditu

MATRIKULA TASA: 270,00 € (Asegurua 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKO: Rodrigo Agerri

AURKEZPENA

Ikastaro honen helburua hizkuntza-eredu handiak (HEH) ikuspegi praktiko batetik ulertzea eta erabiltzea da. Programatu beharrik gabe ikasleei esperientzia praktikoa eskaintzea du helburu, Flowise eta oLLaMa bezalako tresnak erabiliz. Parte-hartzaileek GPT-4o / GPT-o1 bezalako eredu pribatuen eta Gemma2 / LLaMa3 bezalako kode irekiko ereduen erabileran trebatuko dira. Horretarako prompt-ingeniaritza, agenteak eta txatbotak sortu, Berreskuratzez Indartutako Sorkuntza (RAG) ereduak aplikatu eta beste hainbat aplikazio batzuk garatuko dira. Gainera, sorkuntzakoak ez diren atazak ere landuko dira, hala nola informazioa berreskuratzea. Ikastaroak multimodalitatezko ereduak ere barne hartuko ditu, ahotsa, irudiak eta bideoa integratzen dituztenak. Azkenik, ikasleek erabilitako ereduak ebaluatzen, eta haien zehaztasuna eta eraginkortasuna neurtzen ikasiko dute. Ikastaroak etika-kontuetan ere arreta jarriko du, hizkuntzaren aurreiritziak landuz eta informazio sentikorra eredu lokalekin arduraz kudeatuz.

ZURE BILA GABILTZA

Hizkuntza Eredu Erraldoiak (GPT4o edo LLaMa3) ulertu eta erabili nahi dituen ikasle, langile eta ikerleriei zuzendua.

BALDINTZAK

Hizkuntza Eredu Erraldoietan interesa izatea. Programazioa jakitea ez da beharrezkoa izango alde praktikoa aurrera eraman ahal izateko.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO
ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE POSGRADO Y APRENDIZAJE
PERMANENTE

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 27/10/2025 – 31/10/2025

EMATEKO TOKIA: BIRTUALA

HIZKUNTZA: INGELESA

INFORMAZIOA/ IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: HiTZ zentroa

HELBIDEA: Manuel Lardizabal, 1 - Donostia

TELEFONOA: 943 015 918

POSTA ELEKTRONIKOA: training.hitz@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.